



EMAKUMEZKOAK ERANTZUKIZUN POLITIKOA DUTEN POSTUETAN

- > Emakumezkoek betetzen dute Europako herrialdeetako erantzukizun politikoko lau postutatik bat

Emakumezkoek Europako bizitza publikoan, sozialean eta enpresa arlokoan duten presentziak igoera handia izan du azken urteotan eta ordezkaritza politikoko postuetan ugaritu egin da emakume europarren sarrera azken hamarkadan.

Dena den, erantzukizun politikoko maila gorenetan emakumezkoen presentzia oraindik ere gizonetzkoena baino nabarmen txikiagoa da, Europar Batasun osoan, emakumezkoek gobernu eta parlamentuetako kide kopuruaren laurdena betetzen baitute.

Gipuzkoaren kasuan, emakumezkoen presentzia askoz ere handiagoa da eta Foru Aldundian eta Batzar Nagusietan, gizon eta emakumeen artean berdintasuna dago.

- > Gobernuetako emakumezkoen presentziari dagokionez, Suedia dago Europako herrialdeetako sailkapeneko lehen postuan. Haren ondoren, Frantzia, Finlandia eta Austria daude

Gobernuen osaerak agerian uzten du gizon eta emakumeen artean desberdintasuna dagoela erantzukizun politikoetara sarbidea izateko garaian. Batasuneko herrialde guztietan, Suedian izan ezik, emakumezkoen kopurua txikiagoa da gizonetzkoena baino. Batez besteko presentzia % 26koa da.

Horrekin lotuta, herrialdeen sailkapeneko lehen postuan dago lehen aipatu dugun Suedia. Bertan, gobernu kide guztietatik, 13 emakumezkoak dira (% 54). Haren ondoren, Frantzia (% 49), Finlandia (% 47) eta Austria (% 43) daude.

Aurkako aldean, Grezia, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria eta Errumania daude. Herrialde horietan guztietan, emakumezkoen presentzia % 10 baino txikiagoa da estatu haietako gobernuetan.



Emakumezkoak Europar Batasuneko Gobernuetan

(persona zenbatekoa)

Herrialdeak	Gobernua	Emakumezkoak	%
Suedia	24	13	54,2
Frantzia	35	17	48,6
Finlandia	19	9	47,4
Austria	14	6	42,9
Danimarka	23	9	39,1
Belgika	13	5	38,5
Alemania	16	6	37,5
Herbehereak	14	4	28,6
Spainia	14	4	28,6
Letonia	14	4	28,6
Luxenburgo	15	4	26,7
Europar Batasuna	455	117	25,7
Bulgaria	18	4	22,2
Polonia	19	4	21,1
Erresuma Batua	27	5	18,5
Italia	18	3	16,7
Malta	12	2	16,7
Portugal	12	2	16,7
Irlanda	15	2	13,3
Lituania	15	2	13,3
Txekiar Errepublika	16	2	12,5
Errumania	21	2	9,5
Hungaria	11	1	9,1
Estonia	13	1	7,7
Eslovenia	13	1	7,7
Eslovakia	14	1	7,1
Grezia	18	1	5,6

Iturria: Fondation Robert Schuman

Herrialdetako administrazioen arduradunak diren nazioa mailako gobernuaz haratago, nazioetako parlamentuak herrialde bateko biztanleriaren ordezkari politikoen asanbladak dira. Kasu honetan, emakumezkoen presentzia erakunde hauetan hazi egin da azken urteetan, nahiz eta gizonezkoen zenbatekoa altuagoa izan.

Zehazki, emakumezkoen presentzia Europar Batasuneko herrialdeetako parlamentuetan bataz beste %25koa da. Herrialdeak aztertzen badira, Suedia eta Finlandia dira nabarmentzen direnak, %42a baino altuagoa izanik. Rankingaren azken postuetan, aldiz, Malta, Hungaria, Txipre eta Errumania daude, emakumezkoen kopurua %12a baino baxuagoa dena,



Emakumezkoak Europar Batasuneko Parlamentuetan

(pertsona zenbatekoa)

Herrialdeak	Parlamentua	E	%
Suedia	349	157	45,0
Finlandia	200	85	42,5
Herbehereak	150	59	39,3
Belgika	150	59	39,3
Danimarka	179	70	39,1
Espainia	350	124	35,4
Alemania	622	204	32,8
Eslovenia	90	28	31,1
Austria	183	51	27,9
Finlandia	200	85	42,5
Portugal	230	61	26,5
Europar Batasuna	7.123	1.758	24,7
Polonia	460	110	23,9
Txekiar Errepublika	200	44	22,0
Erresuma Batua	650	143	22,0
Italia	630	134	21,3
Letonia	100	21	21,0
Bulgaria	240	50	20,8
Luxenburgo	60	12	20,0
Estonia	101	20	19,8
Lituania	141	27	19,2
Frantzia	577	109	18,9
Grezia	300	52	17,3
Eslovakia	150	24	16,0
Irlanda	166	25	15,1
Errumania	334	38	11,4
Txipre	56	6	10,7
Hungaria	386	35	9,1
Malta	69	6	8,7

Iturria: Fondation Robert Schuman



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



FEDER
Fondo Europeo de
Desarrollo Regional
Unión Europea
Fondo Regional de Desarrollo

Informazio Oharra
2012ko ekaina

> Emakumezkoak ardura politiko garrantzitsua dute Gipuzkoako erakundeetan, Europar Batasuneko buru izanik

Emakumezkoen presentzia Foru Aldundian eta Batzar Nagusietan oso nabarmena da Europako herrialdeen testuinguruan.

Zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuaren kasuan, Diputatuen Kontseilua osatzen duten zortzi pertsonetatik erdia emakumezkoak dira. Proporzio hau hazi egin da azken bi legegaldiekin alderatuz, emakumezkoen presentzia %36 eta %18koa izan dena, hurrenez hurren.

Zuzendaritza Orokorrei dagokionez, emakumezkoen presentzia egungo legegaldian %43koa da eta era berean, aurreko legegaldiekin alderatuz hazi egin da. Aurreko bi legegaldietan parte hartzea %32 eta %15koa izan da, hurrenez hurren.

Gipuzkoako Batzar Nagusien kasuan, lurraldeko parlamentua, erakundeko kideen %51 emakumezkoak dira. Parte hartze tasa hau, aurreko legegaldian zegoena baino zertxobait altuagoa da (%48) eta Europar Batasuneko herrialde guztietan ematen dena baino altuagoa da.

Azkenik, tokiko administrazioei dagokionez, Gipuzkoako udaletxeetan emakumezkoen parte hartzea aipatutako gainontzeko erakundeetako baino baxuagoa da. Izan ere, lurraldeko 88 udaletatik, 25etan emakumezko bat dago alkate bezala, %28a portzentajeetan (%25a azken legegaldian).

